

## Hizkuntzen erabilera kalean

<b>Definizioa</b>	
Herrietako kale garrantzitsuenetan hizkuntzen erabilera zenbatekoa den neurtzen du adierazle honek.	
<b>Hedadura</b>	
Euskal Herria	
<b>Aldagaiak eta kategoriak</b>	
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Euskararen kale-erabilera: kalean entzun diren elkarrizketetan zenbat pertsona ari dira euskaraz</li> <li>• Gaztelaniaren kale-erabilera: kalean entzun diren elkarrizketetan zenbat pertsona ari dira gaztelaniaz</li> <li>• Frantsesaren kale-erabilera: kalean entzun diren elkarrizketetan zenbat pertsona ari dira frantsesez</li> <li>• Beste hizkuntzen kale-erabilera: kalean entzun diren elkarrizketetan zenbat pertsona ari dira beste hizkuntzetan</li> </ul>	
<b>Azpi-adierazleak (gurutzaketak)</b>	
Euskararen erabilera kalean sexuaren eta adinaren arabera.	
<b>Iturria(k)</b>	
<b>Euskal Herriko kale-neurketa</b>	
<b>Iturriaren ezaugarriak</b>	Ikerketa honek Euskal Herriko kaleetan entzuten diren hizkuntzen erabilera kuantifikatzen du. Kalean entzuten diren elkarrizketak behatuz jasotzen da zenbat pertsona ari diren euskaraz, zenbat gaztelaniaz, zenbat frantsesez edota zenbat beste hizkuntzaren batean. Euskal Herrian ehundik gora udalerritan egiten dira neurketak, eta erabiltzen den teknika behaketa zuzena da; hau da, ezertxo ere galdetu gabe, neurtzaileek herriko kaleetan zehar topatzen duten jendeak darabilen hizkuntza jasotzen da. Hala, bere helburua praktikan hizkuntza bakoitza erabiltzearen ekintzak zenbateko maiztasun erreala duen kontrolatzea da. Izan ere, teknika honen abantaila azpimarragarrietakoa neurtzaileek hitzunaren joera naturala jasotzen dutela litzateke datuen subjektibotasuna saihestuz eta emaitza fidagarriagoak lortuz.
<b>Iturriaren arduraduna</b>	Soziolinguistika Klusterra
<b>Hasierako datua eta maiztasuna</b>	1989. urtean egin zen lehen aldiz, eta geroztik sei alditan errepikatu da: 1993an, 1997an, 2001ean, 2006an, 2011n eta 2016an. Gaur egun, bost urtean behin egiten da neurketa.  Udalerrri mailako datu adierazgarriak neurketa bereziak egin diren udalerrietan besterik ez ditugu. EASen jaso diren lehen neurketak 2011koak dira eta azkenak 2019koak. Udalerrri mailako neurketa gehienak bost urtean behin egiten dira Euskal Herriko Neurketarekin batera, baina Udal batzuk bi edo hiru urtean behin egiten dituzte.
<b>Lagina eta akats-tartea</b>	2016ko edizioan 187.635 elkarrizketaren nahiz 515.260 solaskideren informazioa bildu da. Akats-tartea %95eko konfiantza-mailarekin, $p=q$ (% 50/% 50) dela, + 0,3koa da  Udalerrri mailako datuetan akats-tartea aldakorra da.

Informazio osagarria	
<b>Argitalpenak eta txostenak</b>	<p><i>Emitzen txostena: Hizkuntzen erabileraren kale-neurketa. Euskal Herria, 2016</i> <a href="http://www.soziolinguistika.eus/files/hekn2016- eu_1.pdf">http://www.soziolinguistika.eus/files/hekn2016- eu_1.pdf</a></p> <p><i>Medición del uso de las lenguas en la calle. Euskal Herria, 2016</i> <a href="http://www.soziolinguistika.eus/files/hekn2016- es_1.pdf">http://www.soziolinguistika.eus/files/hekn2016- es_1.pdf</a></p> <p><i>Mesure de l'usage des langues dans la rue. Pays Basque, 2016</i> <a href="http://www.soziolinguistika.eus/files/erabilera-fra.pdf">http://www.soziolinguistika.eus/files/erabilera-fra.pdf</a></p> <p><i>Measurement of the street use of languages. Basque Country, 2016</i> <a href="http://www.soziolinguistika.eus/files/erabilera-ing.pdf">http://www.soziolinguistika.eus/files/erabilera-ing.pdf</a></p>
<b>Galdesorta(k)</b>	

